**UDALA ERATZEKO BILKURAREN AKTA**

Berangoko Udalaren Udaletxeko Bilkura Aretoan, bi mila eta hamabosteko ekainaren hamahiruan, goizeko 9:00etan, Hauteskunde Araubide Orokorra arautzen duen 5/1985 Lege Organikoaren 195. artikuluan eta Toki Erakundeen Antolaketa, Jardunbide eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 37. artikuluan ezarritakoa betez eta udalaren bilkura eratzailea egiteko, lehen deialdian bildu dira ondoren adierazten diren zinegotzi hautetsiak. Aldez aurretik zinegotziek euren kredentzialak aurkeztu dituzte, euren pertsonalitatea egiaztatu eta korporazioko kideen interes erregistroetarako egokiak diren adierazpenak aurkezteari buruzko justifikazioa egin dute.

**ACTA DE LA SESION CONSTITUTIVA DEL AYUNTAMIENTO**

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Berango, a las 9,00 horas del día trece de junio de dos mil quince, en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 195 de la Ley Orgánica 5/1985, Reguladora del Régimen Electoral General y 37 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen jurídico de las Entidades Locales y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los concejales electos que a continuación se expresan, quienes han presentado previamente sus credenciales, acreditada su personalidad y justificada la presentación de las oportunas declaraciones a efectos de los Registros de Intereses de los miembros de la Corporación.

BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK

CONCEJALES ASISTENTES

MARÍA ISABEL LANDA GAUBEKA
MIREN IZASKUN ZUBIAUR ZARRAGA
AITOR MIÑAMBRES AMEZAGA
CARLOS JUAN COLLADO CRUZ
ITZIAR AGINAGALDE AVEDILLO
MIREN EDURNE AURREKOETXEA PEREDA
AITOR LORES ITURRALDE
AITOR ETXEBERRIA LARRAZABAL
ALAZNE FERNANDEZ ZUNZUNEGI
EMILIO LOBATO PASCUAL
BEATRIZ URIARTE IBAÑEZ
NEREA JIMENEZ FERNANDEZ
Mª DOLORES MALO DE MOLINA DE LA RIVA

Adinezko mahaia eratu da, Mª Dolores Malo De Molina De La Riva and.ak eta Nerea Jimenez Fernandez and.ak osatuta, hau da, hautatutako zinegotzi nagusia eta gazteena, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak bidalitako ziurtagirien arabera. Mª Dolores Malo De Molina De La Riva and. buru da, nagusia delako eta Idazkari jardungo du Korporazioko idazkariak, Juan Pablo Arnedo Acebo jn.ak.

Jarraian, zinegotzi hautetsien gehiengo absolutua bertaratu dela egiaztatu ondoren, karguaz jabetzeko legeak xedatzen duena irakurtzeko eskatu dio Idazkariari Adineko Mahaiaren Presidenteak. Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikulua irakurri du Idazkariak, eta legeak aintzat hartutako baliozko formula edo formulak irakurri dira.

Legezko testua irakurri eta gero, zinegotzi hautetsiek erantzun egin dute, karguaz jabetzeko xedez; horren ondoren, Korporazio berria legez eratuta dagoela adierazi du Adineko Mahaiak, legezko tramiteak bete direlako.

Ondoren alkatearen hautapena egin da eta ondorio horretarako alkatetzarako hautagaiak aldarrikatu dira, hau da, ondoren agertzen diren zinegotziak, dagozkien zerrenden buruak direnak, ekainaren 19ko 5/85 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritako arautegiari jarraituz:

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por Dª. Mª Dolores Malo De Molina De La Riva y Dª. Nerea Jimenez Fernandez, Concejales electos de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona. Presidiendo Dª. Mª Dolores Malo De Molina De La Riva por ser la de mayor edad y actuando de Secretario de la misma, el que lo es de la Corporación, D. Juan Pablo Arnedo Acebo.

Seguidamente, comprobado que han comparecido la mayoría absoluta de los Concejales electos la Presidenta de la Mesa de Edad solicita al Secretario que dé lectura a lo que determina la ley para la toma de posesión. El Secretario da lectura al artículo 108.8 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y se lee la formula o formulas válidas y reconocidas legalmente.

A continuación de la lectura del texto legal los concejales electos contestan a los efectos de toma de posesión, por lo que cumplidos los trámites legales la Mesa de Edad declara legalmente constituida la nueva Corporación.

Acto seguido se procede a la elección de Alcalde/sa, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/85, de 19 de junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los concejales que, encabezando sus respectivas listas, a continuación se relacionan:

María Isabel Landa Gaubeka and., EAJ-PNV-k aurkeztutako hautagaia.

Dª. María Isabel Landa Gaubeka, candidatura presentada por EAJ-PNV.

Miren Edurne Aurrekoetxea Pereda and., EH BILDU-k aurkeztutako hautagaia.

Dª. Miren Edurne Aurrekoetxea Pereda, candidatura presentada por EH BILDU.

Emilio Lobato Pascual jn., DB-TU-k aurkeztutako hautagaia.

D. Emilio Lobato Pascual, candidatura presentada por DB-TU.

Nerea Jimenez Fernandez and., PSE-EE (PSOE)-k aurkeztutako hautagaia.

Dª. Nerea Jimenez Fernandez, candidatura presentada por PSE-EE (PSOE).

Mª Dolores Malo De Molina De La Riva and., P.P-k aurkeztutako hautagaia.

Dª. Mª Dolores Malo De Molina De La Riva, candidatura presentada por P.P.

Bertaratu diren zinegotziek eskua jasozko botazioa egin dute eta emaniko botoak zenbatu dira, ondoko emaitzarekin:

Los Concejales asistentes proceden a la votación a mano alzada y, efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtiene el siguiente resultado:

| **Hautagaiaren izena**<br>**Nombre candidato** | **Jasotako botoak**<br>**Votos obtenidos** |
|---|---|
| María Isabel Landa Gaubeka | 6 |
| Miren Edurne Aurrekoetxea Pereda | 4 |
| Emilio Lobato Pascual | 2 |
| Nerea Jimenez Fernandez | 0 |
| Mª Dolores Malo De Molina De La Riva | 1 |

Emaniko botoen kopuru osoa 13 izan da, guztiak baliodunak direlarik, ez baitago ez boto zuririk ezta

El total de votos emitidos es de 13, siendo válidos la totalidad de los mismos, no habiendo ni votos en blanco

baliogabekorik ere.

ni anulados.

Zinegotzien kopurua 13koa da eta hautagai batek ere ez duenez legezko gehiengo osoa lortu, MARÍA ISABEL LANDA GAUBEKA and. izan da hautatua, udalerriko herritarren botorik gehienak lortu duen zerrendako burua baita eta Adineko Mahaiaren Presidenteak eskatu dio izendapena onartzen duen ala ez adierazteko. Alkateak izendapena onartzen duela adierazi du eta Alkatea aldarrikatu da, bere karguaz jabetuz berehala, exijitutako legezko formalitateak bete ondoren.

En consecuencia, siendo 13 el número de concejales y al no haber obtenido ninguno de los candidatos la mayoría absoluta legal, resulta electa la candidata Dª MARÍA ISABEL LANDA GAUBEKA, al encabezar la lista que ha obtenido mayor número de votos populares en el Municipio, siendo requerida por la Presidenta de la Mesa de Edad para que manifieste si acepta o no el nombramiento y habiendo expresado su aceptación, fue proclamada Alcaldesa, tomando inmediatamente posesión de su cargo, previa cumplimentación personal de las formalidades legales exigidas.

Korporazioa eratu da MARÍA ISABEL LANDA GAUBEKA alkate and. mahaiburu dela. Talde politikoetako hautagai guztiek ongi etorria eman diote elkarri eta euren nahiak adierazi dituzte legegintzaldi berrirako. Bilduko ordezkariak idatzi bat irakurri du, I eranskinean erantsita doana.

Constituida la Corporación bajo la Presidencia de la Alcaldesa Dª MARÍA ISABEL LANDA GAUBEKA, los diferentes candidatos de los grupos políticos se dan la bienvenida y expresan sus deseos para la nueva legislatura. El representante de Bildu da lectura a un escrito, que se adjunta como anexo I.

Alkate andreak bilkura amaitutzat jo du, goizeko bederatziak eta hogeian. Hori guztiaren akta hau egin da, nirekin batera bertaratuek sinatzen dutena eta nik, idazkariak, ziurtatzen dut.

La Sra. Alcaldesa da por finalizado el acto, levantándose la sesión a las nueve horas y veinte minutos. De todo lo cual se extiende la presente acta que firman conmigo los asistentes, de lo que, como Secretario, certifico.